

2009KO IRAILAK 10

10 DE SEPTIEMBRE DE 2009

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO IRAILAK 10

DIA: 10 DE SEPTIEMBRE DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Pilar ETXABE IRIONDO
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Manuel ZUBIA ARTABE
Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du.

Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, ezohiko pleno honi hasiera emango diogu, gaur irailak hamar, osteguna.
Ezohiko pleno honek bi puntu bakarrik izango ditu, aurrengo puntua:

HIRIGINTZA:

ALONDEGIA UDAL-LIBURUTEGI BEZALA EGOKITZEKO LANEN KONTRATUA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Dakizuen bezala behin behineko izaeraz dagoeneko onartu ziren kontratu bat izan zen eta gaur plenora dakarkigu behin betikoz, behin behineko onartu zen hura, behin betikoz onartzea horrela egokitzen delako. Hirigintza batzordean dagoeneko diktamena egin zen honen inguruan, prozedurazko... bueno ez dakit prozedurazko, akats bat izan da ez bidaltzea onartuta dagoen diktamen hura, zerekin batera, Gorkak badakit, bada ez bada, diktamenaren kopia batzuk egin dituela guztiak edukitzeko baina esan bezala ez naiz oroitzen ze datatan onartutako diktamena dakarkigu gaur hona berriz ere onartzeko, besterik gabe Andoni, nahi baldin baduzu zuk hirigintzako zinegotzi bezala,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, hirigintza batzordean diktamena bera, irakurri genuen diktamenean aurrekariak luze adierazten dira eta irizpenera, ez dakit, dena irakurtzea pena merezi duen edo irizpenera joaten garen zuzen-zuzenean:

IRIZPENA

2009ko irailaren 2ko obra zuzendaritza batzorde

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión de Obras y Servicios de fecha 2 de

informatzaileak ondoren aipatzen den bozkaren ondoren irizpen hau egiten du udal batzaren osoko bilkuran esku usten du honek gehiengo osoz hartu beharreko apirilaren 2ko Tokiko Erregimen Oinarrien 7/185 Legearen 47. artikulua arabera ondorengo proposamena egiten du

Lehenengoa: ALONDEGIA UDAL LIBURUTEGIA BEZALA EGOKITZEKO LANEN behin behingoz esleipena behin betiko izaera ematea prozedura irekiz eskaintza ekonomiko onenari esleitzeko eta esleipenerako hainbat irizpide ezartzeko uztailaren 29ko Udal osoaren akordioaren arabera

Bigarrena: Indarrean dagoen gastuen aurrekontuen kargura gastua agintzea.

Hirugarrena: Esleipendun izan ez direnei, behin betiko esleipena jakinaraztea eta aurkeztutako behin behineko bermearen itzulera onartzea.

Laugarrena: Kontratuaren esleipendun den ANTZIBAR S.A.-ri jakinarazi erabaki hau eta kontratua sinatzeko deitu Zumaiako udalera, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita hamar eguneko epean, eguerdiko hamabietan.

septiembre de 2009 acuerda, como consecuencia de la votación cuyo resultado es el que se expone a continuación, el presente Dictamen y someterlo si procede, a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo por mayoría absoluta establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de las Bases de Régimen Local, la siguiente Propuesta

Primero: Elevar a definitiva la adjudicación provisional del contrato de OBRAS PARA LA REHABILITACION DE LA ALHÓNDIGA COMO BIBLIOTECA MUNICIPAL, pro procedimiento abierto, aprobada por Acuerdo del Ayuntamiento Pleno de fecha 29 de julio de 2009-

Segundo: Disponer el gasto con cargo al presupuesto vigente de gastos.

Tercero: Notificar la adjudicación definitiva a los licitadores que no han resultado adjudicatarios y autorizar la devolución de la garantía provisional por ellos prestada.

Cuarto: Notificar a ANTZIBAR, S.A., adjudicatario del contrato, la presente Resolución y citarle para la firma del contrato que tendrá lugar en el Ayuntamiento de Zumaia, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente a la notificación de la adjudicación definitiva, a las 12:00pm horas

Bostgarrena: ZUMAIAKO ALONDEGIA UDAL LIBURUTEGI BEZALA EGOKITZEKO LANEN zuzendaritzako laguntza teknikoaren zerbitzuaren kontratua, kontrataegilearen profilean eta Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzea ebazpen honen egunetik zenbatzen hasita berrogeita zortzi eguneko epean

Seigarrena: Kontratua sinatzen denetik eta hiru hilabeteko epean, kontratu honen ziurtatutako kopia bat Euskal Kontu Epaitegira igortzea nondik datorren espedientearen laburpenarekin batera, Fiskalizazio jarduna bete ahal izateko urriaren 30eko 30/2007 sektore publikoko kontuaren kontratu legeak bere bederatzigarren artikuluan xedatutakoan oinarrituta, eta

Zazpigarrena: Kontratuaren oinarritzko datuak sektore publikoaren kontratuaren erregistrora bidali urriaren 30eko Sektore publikoko kontratuen 30/2007 Legearen 308.3 artikuluan xedatutakoaren arabera,

Obra eta zerbitzuetako batzorde informatzailearen oinordeko presidentea den Andoni Etxaniz Osak, agintzen eta sinatzen duen Zumaian, 2009ko irailaren 2an,

Quinto: Publicar la adjudicación definitiva del contrato de OBRAS PARA LA REHABILITACION DE LA ALHÓNDIGA COMO BIBLIOTECA MUNICIPAL en el Perfil del contratante, y publicar anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en el plazo de cuarenta y ocho días a contar desde la fecha de la presente Resolución

Sexto: Remitir, dentro de los tres meses siguientes a la formalización el contrato, para el ejercicio de la función fiscalizadora, al Tribunal Vasco de Cuentas, una copia certificada del documento en el que se hubiere formalizado aquél, acompañada de un extracto del expediente del que se derive, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Séptimo: Comunicar los datos básicos del contrato al Registro de Contratos del Sector Público, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 308.3 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Lo manda y firma el Sr. Presidente de la Comisión Informativa de Obras y Servicios, por delegación, D. Andoni Etxaniz Osa en Zumaia, a 2 de septiembre de 2009

Hau da diktaminatu genuena eta batzordean hona behin betikoz onartzeko ekartzeko moduan prestatu genuena, beraz, gai honen aurrean alderdi bakoitzak eman dezala bere bozka,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Arratsaldeon guztioi.

Diktamenari baiezko botua eman genion, batzordean. Orain dela hilabete t'erdi bat uztaileko plenoan baiezkoa eman genion bezalaxe behin behineko esleipenari. Baina, egia da batzorde hartan esan genuela eta gaur berriz errepikatzen dugula, diktamena aurkeztu bai, irakurri bai, bozkatu ere bai, baina diktamena bozkatzeko asmoa zegoela ez zela adierazten batzorde hartako gai-zerrendan. Beste behin ere eta eskatzen dugu pleno hontan ba... horrelakorik ez dadin gertatu hemendik aurrera.

Bestaldetik, gure baiezko botua uztailean adierazi genuen arrazoi berdinegatik izango da, gu hemen herriaren alde lana egiteko gaudelako eta herriarentzat inportanteak diren proiektuak aurrera ateratzeko.

Berez, pozten gara behingoz, alondegiaaren proiektua martxan jartzekotan delako, gure ustez atzerapena izugarria izan da, 2007ko erdialderako gutxienez obrak hasita edo asmo horrekin eta bukatzeko ba... ia martxan behar zuten eta 2009a bukatuko zaigu hastear daudela. Hori esan da ba... obrarekin ados gaude, alondegia berritzearekin ados gaude, gure asmoa izan zen bere egunean, egia da, gure asmoa ez zela egun badagoen zerbitzua ordezkatzea alondegian, baizik eta herriarentzat beste zerbitzu berri batzuk eskaintzea, egin behar den inbertsio importante hori dela eta, azken finean, obren esleipena bi miloi eta berrehun mila eurotara dihoa baina bukatzerako altzari eta barruko egokitzapen guztira egiterako ez da hiru miloietatik urrutik ibiliko, dirutza bat da, eta egun bizi dugun krisi egoera larri hontan dirutza horri etekinik haundiena ateratzea esan beharko luke udal honen helburua, eta gainera alondegian liburutegia eta kultur teknikari, zinegotzi eta bulegoak orokorrean jartzea ba... ekarriko duena da Foronda Kultur Etxea, egungo Kultur Etxea hutsik uztea eta gure ustez horrek galdera ikurrak zabaltzen ditu eta gure ustetan lehenbaitlehen jakin beharko genuke zein asmo duen hemengo Udal Gobernuak alondegiko obrak bukatzen direnerako Foronda Kultur Etxe horrekin, horixe ba... esan dudan bezala gure aldeko bozka izango da,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Ez guk bakarrik esan, hau bi aldiz bozkatu behar dela, aurrena behin behineko bozka eta gero behin betiko; Behin behinekoan ere aldeko botua eman genuela, ados gaude hor jarri

behar den alondegian Udal Liburutegia jartzea, eta lehen eman genion aldeko bozka eta gaur ere aldeko bozka emango diogula,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, Talde Mistoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bozka eman eta erantzun pixka bat ere erantzun nahiko nioke hirigintzako batzordeko lehendakari bezala, noski, aldeko bozka emango dugula, asteazkenean egin genuenez ohiko hirigintza batzorde bat eta asteazkenean bertan Antzibarrek aurkeztu zuen Zumaiako udaletxean lan hauek beroiei esleitu ahal izateko aurkeztu behar ziren abalak, obraren kopuruaren zati bat abalatu behar da esleitu ahal izateko eta teknikariak hori ikusirik egoki iruditu zitzaien eguerdiko ordu bat´erdietan aurkeztu zuten abala esku artean edukita, egoki ikusi zuten ba... arratsaldean hirigintza batzordean dagoenez, aprobetxatu dezagun eta lan bat aterako dugu hurrengo astelehenean berriz ere hirigintza batzorderik egiteko beharra sortu gabe; Hau tramite hutsa da, gaia ezaguna da guztiengatik, aurreko Udal Plenoan ere erabakia, gaur hartuko dugun erabakiaren parekoa hartu genuen, eta bertan esplikatzen zen, bertan bozkatu zen urgentziaz tratatzea, bertan ba... urgentziaz tratatzea erabaki genuen eta gaur berriro ere hemen, ba... horrelako kexa eta berriz ere, ez dakit, orduan ere esplikatzen zen zein izan zen arrazoia, aukera, aukera bat izan zen sortu zena ordu bat´erdietarako behar genuen dokumentazio guztia geneukan eta zertarako bilduko gara teknikari guztiak eta zinegotzi guztiak astelehenean, begiratu... ez genuen joan den asteazkenean egin, ez genuelako eguneko aztergaian sartu, gaur berriz ere juntatu behar gara hau egiteko, hori ebitatzeko platerean jarri zen eta aurrera atera zen eta nik usten dut hori, ba... gauzak ondo egitea dela, eta ez gaizki egitea, azkenean errekurtsuak eta baliabideak egoki kudeatu behar dira, gure denborak ere garrantzitsuak dira, teknikarien denborak ere garrantzitsuak dira eta ia ke teknikari eta politikariak bertan gauden eta erabakiak hartzeko moduan dauden eta kontuak nahiko ezagunak dira zertarako atzeratu beharrik gabe? Ez dakit, hemendik aurrera atzeratzen hasi beharko gara beharrik gabe ere, zeren, bestela Udal Pleno hontan betiko kexa entzun beharko dugu, ez direla gauzak ba... ez dakit, -para la galeria-, bueno kexa hori mantentzea ba.. agian –futuro- bat eduki dezakelakoan egiten da, baina batzordean ere esplikatzen zergatia eta ez zait iruditzen ba... kexatzeko modukoa denik, baino bueno, hori nire, gure irudipena.

Gero pozten gara obrarekin ados zaudetela entzutea, hasiera batean horrela komentatu duzute behintzat, baino gero ondoren, Forondan zer egingo den, zer gertatuko den, diruaren erabilera egokia, desegokia, komentatzen da

2007an hasi beharra zegoela, nik usten dut gai hortan luze eta zabal hitzegina dagoela, adostua zegoen edo bueno... onartua zegoen proiektua ez zen kultur eragileekin behar bezala adostu gure ustetan, Foro bat ireki zen ba... proiektu honi bigarrenago paxada bat emateko eta kontrastatzeko ea benetan hori ote zen herriko eragile eta ekipamendu horren erabiltzaileek behar zuten eraikina edo beste bat behar ote zuten, behar horiei erantzuten dien eraikin bat proposatu genuen beroien eskutik eta hori da gaur hemen behingotik martxan jartzeko aukera daukaguna, atzerapenak bai egon dira nahi baino gehiago, baino tartean ere epaitegiek atzerapenak ba... sortu dituzte edo etorri zaizkigu ba... anulatu direlako konkurtso batzuk eta anulatu direlako base batzuk; usten dut ba... beti guztia mahai gaietan jarri behar izatea nahiko astuna eta nahiko petrala badela, baino, tartean geratu diren gauza asko ba... kanpoan usten baditugu eta atzerapenak badirudi hemen atzerapenak-atzerapen -porque sí, porque dejamos pasar el tiempo al tun-tun- delako, Ez! Tartean gauza asko gertatu dira eta zorionez, bai hasiera doa obra eta gure ustez alde batetik herritarrekin eta erabiltzaileekin adostutako eraikin bat denez, eta baita ere Kultur-kontsumo edo Kultur-erabilera indikadore guztiek esaten dute Liburutegi publikoak hurbildu, sustatu Herrikoitu behar direla eta gu ba... alde hortatik nabarmen ikusten genuen Zumaiako Udal Liburutegia ez zegoela lekurik egokienean eta iruditzen zaigu orain dagoen lekuan, lehen zegoen lekuan baino erabiltzaile askozaz ere gehiago edukitzeko aukera daukagula eta liburuek esku artean denbora gehiago egingo dutela eta gutxiago apaletan; horregatik inbertsio interesgarria eta aberasgarria iruditzen zaigu liburuek eskuetan aberasten baitgaituzte apaletan hautsa hartu besterik ez dute egiten eta bueno besterik gabe gure aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Guk ere gure aldeko botua eta bakarrik gogorarazi honek atzerapen bat izan baldin badu izan dela, Arkitektoen kolegioak eragindako helegite baten ondorioz izandako sententzi baten arabera izan den atzerapen bat izan dela eta beraz horrek esan nahi duela ba... bere garaian gauzak ez zirela ondo egin, besterik gabe, eta gauzak ondo egin ez zituztenak gaur egun aipatzea atzerapen bat dagoela, ba... gutxienez kontraesan bat badela; hori ere agerian ere jarri nahiko genuke. Andonik ondo esan duen bezala, atzerapenak ez dira atzerapen edozein arrazoiengatik, baizik eta atzerapenak beti dute justifikazio bat, eta kasu hontan duten justifikazioa epaitegiek eman duten justifikazio bat izan da. Gu erabat ados gaude hain zuzen ere, Talde Mistoko bozeraemaileak esan duen bezala, kontzeptuz hartutako erabaki bat izan delako Liburutegia bertan egitearena. Kultur eragile guztiekin edo gehienekin behintzat, adostutako erabaki bat izan delako eta zentzu hortan gustora egoteko

moduan aurkitzen gara, besterik gabe guk ere aldeko botua emango diogu, beste turno bat irekiko dugu, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, atzerapenak noski duela beti justikizazioa, batez ere, atzerapenaren arduraduenarentzat, sententzi famatu hori iritsi zenerako oker ez baldin bagaude urte beteko atzerapena zeraman ia proiektuak eta beste irregulartasun edo akats edo dena delako batzuk ere gertatu dira, hain zuzen ere, Alkateak, berak, egin baitzuen, eman zion ez hasiera obren kontrataziorako prozedura bati alkateari ez zegokion eskumen bat erabiliaz eta horretaz garaiz konturatu gabe gorabeherak gorabehera kultur eragileekin sailakerak egin ziren aurreko agintaldian eta nabarmena da adostasunik ez geundela lortu, zaila izaten da adostasunik lortu nahi ez dituenarekin lortzea, errazagoa lortu nahi izaten dutenekin lortzea, kuriooa dena da sailakera horietan non gonbidatuta zeuden kultur eragile guztiak eta bateren batzuk ez dakit, denak, ez baitdago zerrenda bat kultur eragileak exhaustiboki examinatzen dituenak herri hontan, baina bueno etortzen ziren eta inoiz ez zuten aipatu liburutegiarena edo aipatu baldin bazen ez zen izan aho batez aipatzen zen kontu bat edozein modutara berriz ere diogu, gure aldeko botua pozten gara behingoz alondegia martxan jartzeko asmoa dela eta ea hemendik aurrera obrak behar bezala joaten diren ahal den denborarik gutxienean, eta ahal den arazorik gutxien planteatuz,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde mistoa, Ezerrez; Guk ere ezerrez; Besterik gabe, bozkatzera pasako gara, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batua Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botuaa eta EA-k ere aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 2 EA; 2 EB-Berdeak/Aralar)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

LEHENENGOA:
ALONDEGIA UDAL-
LIBURUTEGI BEZALA
EGOKITZEKO LANEN
KONTRATUA BEHIN-BETIKO
IZAERAZ AHO BATEZ
ONARTZEA

BIGARRENGOA:
Kontratuaren behin-betiko esleipena argitaratzea, kontratatzaile-profilean iragarkia jarri».

HIRUGARRENGOA:
Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 3 Talde Mistoa; 2 EA; 2 EB-Berdeak/Aralar)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD Y ADJUDICAR DEFINITIVAMENTE SI PROCEDE, EL CONTRATO de OBRAS PARA LA REHABILITACIÓN DE LA ALHÓNDIGA COMO BIBLIOTECA MUNICIPAL

SEGUNDO: Publicar la adjudicación definitiva del contrato mediante anuncio en el Perfil de contratante».

TERCERO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Azken puntua: Bigarrena; **5.KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA BIDEZKO BALDIN BADA**

Honen inguruan ere, Hazienda batzordean, Ogasun batzordean diktaminatutako gai bat da, eztabaidatu eta beraz diktaminatutako gai bat, ez dakit Josebak, zuk hitza hartu nahi duzun, ala zuzenean nola hirigintzako gai bat den, hirigintzako Andonik hitza,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Kontua da, kreditu aldaketa hau Zumaian eta dirulaguntzak lortu dituzten udaletxe guztietan egin beharreko kreditu aldaketa bat dela, zeren, dirulaguntzak lortu ahal izateko eta Estatutik lortu diren dirulaguntzak zazpi proiektuak egin ahal izateko lortu zirenez ba... proiektu horiek zuzendu egin behar dira, baldintzetako bat zen dirulaguntza horiek lortzeko aurrekontuetan ez edukitzea aurreikusia inongo diru kopururik obra edo lan horiek exekutatzeko eta guk hala egin genuen; aurkeztu genituen zazpi proiektu eta zazpi proiektu horiek 2009ko aurrekontuetan ez zuten inongo diru izendapenik.

Gobernu Zentralak diruz laguntzen duena obra exekuzioa da ez proiektuen redakzioa eta ondoren obren zuzendaritza eta bere garaian hirigintzako departamentuan zazpi proiektuak nola bideratu aztertu zenean, zazpi proiektu horietatik hiru etxeko teknikarien bitartez zuzentzea erabaki zen eta beste lau proiektu kanpoko teknikarien bitartez azpikontratatuta zuzentzea iruditu zitzaigun egokia, beraz, inongo diru aurreikuspenik edukitzea baldintzetako bat zenez, orain diru aurreikuspen hori sortu beharra dago kreditu aldaketa baten bitartez, beraz, kreditu aldaketa honek egiten duena da obra zuzendaritzak ordaindu ahal izateko, partidak sortuko ditu, partida hauek sortzeko jaitsiko da bide publikoetako hobekuntzetako obretako diru partidatik hasiera batean 250 mila € zeuden, 54 mila € jaitsiko dira hemendik, hau bait dira behar direnak lau obra zuzendaritza horiek ordaindu ahal izateko eta partida berri bat sortuko da planaren obren zuzendaritza izango dena, 54 mila €koa.

Beraz, inbertsioetako partida bat denez ez kopuruarengatik baizik eta inbertsioetako seigarren kapituluko euro bat ukitzeko ere plenotik pasatu beharra duenez, horregatik gaur pleno hontara dakarkigu erabaki hau onartua izan dadin eta besterik gabe bozkatzera pasatuko ginatke,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, egia da, planaren baldintzetako bat zela aurretiaz aurrekontuetan agertzen ez ziren proiektu berriak izan beharra, plan honen bidez dirulaguntzak lortuko zituztenak, hala ere badira hilabete batzuk zazpi proiektu hauek gauzatzen ari direla eta gure ustez eta itxura batean, behintzat, nahiko aurreratuta dihoaz ez dakit bat edo beste bukatu den edo ez; kontua da orain arte obrak iraun duten edo dirauten bitartean obretako zuzendaritza beharrezkoa izan dela eta dela eta gauza bat da dirulaguntzak eskatzerakoan proiektu horiek aurrekontuetan ez egotea eta bestea da lanak inolako partidarik gabe edo bueno, behintzat, konzeptu hontan partidarik gabe esleitu izana.

Bueno gobernatzeko ardurak izan ditugu eta badakigu gauzen gorabeheretan batzuetan disfuntzioak sortzen direla, baina ez genuke hori aipatu gabe utzi nahi, eta bestaldetik nahiko, ez dakit, harrigarria, harrigarri hitza askotan erabiltzen dugu, baina bueno aipatzeko modukoa da baita honen, zuek... honen arduraduna dituzue baina garai batean ez zenituzten oposizioan izaten zintzen eta nahiko zorrotzak izaten zintzen horrelako kontuekin, diru partidarik gabeko lanak edo kontratuak egite horrekin edo kreditu aldaketak beraiek proposatzearekin; hau 5. kreditu aldaketa da eta bueno... badirudi orain sortu zaizutela garai batean ez zenuten zaletasuna kreditu aldaketak egiterakoan, oker ez banago kreditu aldaketak izaten ziren aurrekontuak egin dituenaren prebisio falta izugarria adierazten zuten tresnak, bueno hala ere beharrezkoa baldin bada, gure aldeko botua izango du, noski,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralar,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Bai guk bakarrik esan ez garela oso... azpikontratatzeko oso aldekoak, baina bueno ikusten dugu obra hauek egin behar direla hasi behintzat urte hontan gainera eta aldeko botua emango diogula, besterik ez

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Talde mistoa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Guk ere aldeko botua, besterik gabe Bozkatzera pasako gara formalki, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko Botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Ezker-Batua Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde-mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta guk ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 PNV-EAJ; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Talde Mistoa; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 PNV-EAJ; 2 EB-Berdeak/Aralar; 3 Grupo Mixto; 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: 5 .
KREDITU ALDAKETA AHO
BATEZ ONARTZEA

Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

PRIMERO: APROBAR POR
U N A N I M I D A D L A
M O D I F I C A C I O N D E
CREDITO N° 5

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Ez ohizko plenoa denez, berez, plenoa hemen bukatzen da ez dago Eskari-Galderik eta besterik gabe eskerrik asko hona etorri zareten denei

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, arratsaldeko zazpirak eta hoguei direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas veinte minutos y yo el Secretaría doy fé,

Idazkariak,

